24.11.2022



## Aiherra

### Pilota txapelketako finalean, neskek galdu

Iparraldeko pilota batzordeak antolatu txapelketa gure neska gazteentzat joan den ibiakoitzean bururatu zen, Uztaritzeko trinketean. Palaz trinketean ari dira pilota goma hutsarekin, txapelketa ederra eginik, Maiana Durruty eta Emma Etcheverry aihertarrek galdu dute Denek Bat-eko Zoe Moustirats eta Ermine Barberarenaren kontra, 3 mantxetan (09/15 ; 15/14 ; 05/10). Finalean galdu baldin badute ere, ez da batere gaizki hein hortara heldurik. Biba zuek!



*Maiana Durruty eta Emma Etcheverry Xabi Harguindeguy trebatzailearekin*